

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Behar den dokumentazioa matrikula gauzatzeko UPV/EHUren aplikazio informatikora igo beharko duzu 10 eguneko epearen barruan. Ikasle profila erabili behar duzu aplikazioan sartzeko, eta “Matrikulak” karpetako “Matrikulatzeko dokumentazioa igo” atala aukeratu. Bideo bat daukazu azalpenekin.

Dokumentazioa honako hau da:

- Argazkia, beharrezkoa ikasle txartela egiteko .jpg formatuan.
- NAN / Nortasuna egiaztatzekeo agiria
- Unibertsitatean sartzeko aukera eman dizuten probaren edo ikasketen fotokopia konpultsatua, CSVrekin egindako kopia, edo ziurtagiri akademiko pertsonalaren fotokopia eta originala. **PROBA EDO IKASKETAK BESTE UNIBERTSITATE BATEAN EGIN BADITUZU BAKARRIK.**
- Prezioak ordaintzetik salbuetsita egoteko edo prezioak murrizteko kasuetan (prezioei buruzko agindua), hori egiaztatzen duen agiria:
 - Ohorezko matrikula batxilergoan
 - Familia ugaria
 - Guraso bakarreko familiak
 - Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak
 - Ikaslearen desgaitasuna ($\geq 33\%$) edo zuzeneko senide batena ($\geq 65\%$)
 - Terrorismoaren biktimak eta senideak
 - Genero indarkeriaren biktimak eta 25 urte baino gutxiagoko semealabak
 - Nazioarteko babesaren eskatzaileak eta onuradunak eta aberrigabeak, errolda-ziurtagiria barne.
 - Erroldatze ziurtagiri kolektiboa interesatuak badu desgaitasun bat daukan zuzeneko senidea, genero indarkeriaren biktima baten seme edo alaba bada (25 urte baino gutxiagokoa), edota terrorismoaren biktima baten senidea.
- Ikasleak espedienteak lekuz aldatu beharko du unibertsitatean sartzeko proba UPV/EHUen egin ez badu, edota unibertsitateko beste ikasketa batzuetan matrikulatuta egon bada.
- Datu ekonomiko eta estatistikoen orria, matrikula-prozesuan jakinarazi beharrezkoa.

Matrikularen ordainketa helbideratu nahi baduzu, bankuko datuak eman beharko dituzu ordainketa helbideratzeko inprimakiaren bidez matrikula egiterakoan; baina gogoratu txartel/bizum/NireOrdainketa Wallet-en bidez ere ordain dezakezula.